



gazte **ak**

ipuskoa

Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako
gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa.
Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako
gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa.
Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako
gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa.
Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako
gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa.
Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazte
ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa. Gipuzkoako
gazteen ahotsa. Gipuzkoako gazteen ahotsa.

05	Gazteakt	Gazteakt
06	Dilema: Ipuskoa	El dilema: Ipuskoa
07	→ 1. Identitate berriak eta komunitatea	→ 1. Nuevas identidades y comunidad
08	Gipuzkoarra izateko beharrezkoa dela uste duzu euskara erabiltzea edo ulertzea?	¿Consideras necesario usar o entender el euskera para ser guipuzcoano/a?
09	Nork “merezi” du gipuzkoarra sentitzea?	¿Quién “merece” sentirse guipuzcoano/a?
10	Etorkizuna ba al du “auzolan”-ak, Glovoren bidez dena eskatzen dugun eta influencerrekin auzokideekin baino konektatuago bizi garen mundu honetan?	¿Tiene futuro el “auzolan” en un mundo donde pedimos todo por Glovo y estamos más conectados con influencers que con nuestros vecinos?
11	→ 2. Demokrazia berria	→ 2. Nueva democracia
12	Gaur egungo politikaren pertzepzioa	Percepción de la política actual
13	Zein politika mota behar ditugu sistema demokratikoa indartzeko?	¿Qué tipo de políticas necesitamos para reforzar el sistema democrático?
14	Zer rol izan behar du Gipuzkoak gatazka globaletan?	¿Qué rol debe jugar Gipuzkoa en conflictos globales?
15	→ 3. Ekonomia	→ 3. Economía
16	Zein sektoretan du etorkizuna Gipuzkoak?	¿En qué sectores tiene futuro Gipuzkoa?
17	Zer balio bilatzen dituzte gazteek enpresetan?	¿Qué valores buscan los jóvenes en las empresas?
18	Zein izan beharko litzateke Gipuzkoaren garapenaren lehentasuna?	¿Cuál debería ser la prioridad para el desarrollo de Gipuzkoa?
19	Titularrak	Titulares
22	Aktibazio foroa	Aktibazio foroa
26	Aktibistak	Aktibistak

gazteakt

Gazteen ideiak partekatu, eztabaidatu eta gizartearen eraldaketan eragiteko sortutako topagune digital eta fisikoa da ekimen hau. Helburua da gazteek egungo erronkei buruz hausnartzeko, iritziak kontrastatzeko eta elkarrekin proposamen sendoak eraikitzeko espazio segurua eta erakargarria eskaintzea.

Plataforma honek aukera ematen die parte-hartzaileei gizarteko dilema nagusiei aurre egiteko, ikuspegi anitzak ezagutuz eta eztabaida aberasgarriak sustatuz. Prozesu deliberatiboen bidez (Aktibazio foroa), gazteek euren ideiei forma ematen diete eta gizartean benetako eragina izan dezaketen proposamen eta proiektu zehatzak - aktuak - sortzen dituzte.

Gainera, espazio honek komunitatea indartzen du, belaunaldi gazteari ahotsa eta erabakimena emanez. Horrela, gazteak eraldaketaren protagonista bihurtzen dira, etorkizun inklusiboago eta bidezkoago baterantz aurrera eginez.

Esta iniciativa es un espacio digital y físico creado para compartir las ideas de los jóvenes, debatirlas y actuar en la transformación de la sociedad. El objetivo es ofrecer un espacio seguro y atractivo para que los jóvenes reflexionen sobre los retos actuales, contrasten opiniones y construyan juntos propuestas sólidas.

Esta plataforma da la oportunidad a los participantes de enfrentar los principales dilemas de la sociedad, conociendo múltiples perspectivas y fomentando debates enriquecedores. A través de procesos deliberativos (Aktibazio foroa), los jóvenes dan forma a sus ideas y crean propuestas y proyectos concretos - actos - que pueden tener un impacto real en la sociedad.

Además, este espacio fortalece la comunidad, dando voz y capacidad de decisión a la generación joven. De este modo, los jóvenes se convierten en protagonistas de la transformación, avanzando hacia un futuro más inclusivo y justo.

Ipuskoa

Ipuskoa: zeintzuk izango dira hurrengo 1000 urteetan Gipuzkoarron nortasun eta identitate berriak?

Gipuzkoako nortasuna —euskaran, komunitate-balioetan, memoria historikoan, tokian tokiko aniztasunean, adierazpen artistikoetan eta bizitzeko moduan errotua— ez da estatikoa. Belaunaldi bakoitzarekin eboluzionatzen du. Gaur egun, ordea, tradiziozko hainbat osagai desegiteko arriskuan daude, globalizatutako, hiperlotutako eta geroz eta homogeneoagoa den gizarte batean. Testuinguru honetan, gazteria ez da soilik helburu-publikoa, baizik eta nortasun horren berrinterpretazio eta transmisio aktiborako funtsezko eragilea ere bada. Zein proposamen edo proiektu jarri daitezke abian?

FITXA TEKNIKOA

Informazio biltzea online inkesta baten bidez egin da, gailu anitzeko portalean kokatuta, eta prozesuari, helburuei eta datu-babesarekin lotutako eskubideei buruzko informazioa emanda.

Erabilitako laginketa ez-probabilistikoa izan da, laginketa intentsionalaren (hainbat gune, webgune eta sare

sozialetan, ingurune sozial ahalik eta aniztasun handiena lortzeko helburuarekin) eta elur-bola bidezko laginketaren konbinazioan oinarritua, erabiltzaileen arteko gomendioen bidez zabalduz. Ehunekoak, irakurketa errazteko, hurbilen dagoen zenbaki osoara biribilduz aurkezten dira.

Inkestak 1.065 pertsonaren parte-hartzea izan du. Osa-tutako galdetegi kopurua eta erregistratutako erantzunak itemen arabera aldatu dira, galdera bakoitza erantzun duten pertsonen benetako erantzunak soilik kontuan hartu direlako.

Parte-hartzaileen gehiengoa Donostialdean bizi da, Bidasoa eta Urola Kosta ere nabarmen agertzen direlarik, baina eskualde guztietako erantzun asko jaso dira. Emakumeak dira nagusi, eta 22 eta 30 urte arteko gazte helduak. Hezkuntza-maila altua da, unibertsitate- eta graduondoko ikasketak nagusituz. Gehienek lan egiten dute eta beren egoera ekonomikoa ertain edo nahiko ona dela baloratzen dute.

Informazioa biltzeko prozesua 2025eko urria eta abendua bitartean gauzatu da.

Ipuskoa: ¿Cuáles serán en los próximos 1000 años las nuevas identidades y el nuevo carácter de los gipuzkoarras?

La identidad de Gipuzkoa —arraigada en el euskera, los valores comunitarios, la memoria histórica, la diversidad local, las expresiones artísticas y la forma de vida— no es estática. Evoluciona con cada generación. Hoy en día, sin embargo, varios de sus componentes tradicionales corren riesgo de desaparecer en una sociedad globalizada, superpoblada y cada vez más homogénea. En este contexto, la juventud no es solo el público objetivo, sino que también se convierte en un actor fundamental para la reinterpretación y transmisión activa de esa identidad. ¿Qué propuestas o proyectos se pueden poner en marcha?

FICHA TÉCNICA

La recogida de información se ha llevado a cabo a través de la realización de una encuesta on-line alojada en un portal multi-dispositivo, informando del proceso, el objetivo y los derechos vinculados con la protección de datos.

El muestreo aplicado ha sido no probabilístico combinando un muestreo intencional (en diferentes sites, webs y RR.SS, con

la intención de impactar en un entorno social lo más diversificado posible) y con un muestreo bola de nieve a partir de la recomendación de unos usuarios a otros.

La encuesta contó con la participación de 1.065 personas. El número de cuestionarios completados y de respuestas registradas varió según cada ítem del cuestionario, ya que se contabilizaron únicamente las respuestas efectivamente emitidas por las personas que contestaron cada pregunta. Los porcentajes se presentan redondeados al número entero más cercano para simplificar la lectura.

Entre las personas participantes se aprecia una presencia notable de Donostialdea, junto con aportaciones significativas de Bidasoa y Urola Kosta, aunque se han recibido muchas respuestas de todas las comarcas. Predominan las mujeres y una población adulta joven entre 22 y 30 años. El nivel educativo es alto, con gran concentración en estudios universitarios y de posgrado. La mayoría trabaja y valora su situación económica como media o moderadamente buena.

La recogida de información se ha llevado a cabo entre los meses de octubre y diciembre de 2025.

1

Identitate berriak eta komunitatea

Zergatik da hain garrantzitsua identitatea Gipuzkoa bezalako lurralde batean?

Historikoki, Gipuzkoak oso errotuta izan ditu balioak.

Lehenengoa euskara da. Euskara da, gipuzkoar eta euskaldun bezala, komunitatea kohesionatzen duen eta gure izatearen bihotzean dagoen ezaugarria. Bigarren balioa elkartasuna da. Berdintasun eta justizia sena nabarmena dugu gipuzkoarrok. Hirugarren balioa autogobernatzeko borondate irmoa da. Gure herriak asmatu badu aurrera egiten, izan da izaera propioa duelako, jakin duelako bere burua antolatzen, autogobernatzeko eta lege propioak zein erakundeak garatzen eta defendatzen. Baita garai zailenetan ere.

Azkenaldian, globalizazioaren eta migrazio-prozesuen ondorioz, Gipuzkoako lurraldean aldaketak izan dira kultura antzietan, eta gaur egungo biztanleria askotarikoagoa da. Horregatik, une egokia da gipuzkoar egiten gaituena birplanteatzeko edo indartzeko, jaioterria edozein dela ere.

Nuevas identidades y comunidad

¿Por qué es tan importante la identidad en un territorio como Gipuzkoa?

Históricamente, Gipuzkoa ha tenido unos valores muy arraigados.

El primer valor es el euskera. El euskera, como guipuzcoanos y euskaldunes, es la característica que cohesiona a la comunidad y que se encuentra en lo más profundo de nuestra identidad. El segundo valor es la solidaridad. Los guipuzcoanos tenemos un marcado sentido de igualdad y justicia. El tercer valor es la firme voluntad de autogobernarse. Si nuestro pueblo ha sabido avanzar, ha sido porque tiene una identidad propia, porque ha sabido organizarse, autogobernarse y desarrollar y defender leyes e instituciones propias, incluso en los tiempos difíciles.

En los últimos tiempos, debido tanto a la globalización como a procesos migratorios, el territorio de Gipuzkoa ha vivido cambios a nivel multicultural y la población actual es más diversa. Por ello, es un buen momento para replantear o fortalecer aquello que nos hace guipuzcoanos independientemente del lugar de nacimiento.



GAZTEAKT

Identitate berriak eta komunitatea


Gipuzkoarra izateko beharrezkoa dela uste duzu euskara erabiltzea edo ulertzea?

Lehen emaitzak erakusten du euskarak oraindik ere funtsezko lekua duela gipuzkoar identitatean: %58k uste du gipuzkoar sentitzeko beharrezkoa dela, eta %42k, aldiz, ez duela ezinbestekotzat jotzen.

Nuevas identidades y comunidad

¿Consideras necesario usar o entender el euskera para ser guipuzcoano/a?

El primer resultado muestra que el euskera sigue siendo un elemento central de la identidad guipuzcoana: un 58% cree que es necesario para sentirse guipuzcoano/a, frente a un 42% que no lo considera imprescindible.



%58 Bai
%42 Ez


58% Sí
42% No



Nork “merezi” du gipuzkoarra sentitzea?

Gipuzkoarra izatea definitzen duten baloriei dagokienez, hizkuntza eta kultura dira nagusi, parte-hartzaileen %60k aukeratu dute. Ondoren, ingurumen naturala zaintzea (%21ak). Aisialdia, elkartasuna edo teknologia bezalako beste elementu batzuk bigarren mailakoak direla hautematen da. Iruzkinetan, Gipuzkoan bizitzeko esperientziaren garrantzia, tokiko gizartean integratzea eta gazteriaren paper identitatea mantendu eta berrasmutzen duena nabarmentzen dira.

Gipuzkoarra izateko “merezi duenak” nor den galdetuta, ikuspegi irekia nagusitzen da: %34k uste du lurraldean bizi eta ekarpena egiten duen oro dela; beste %34k dio ez dela beharrezkoa inongo “baimenik” horrela identifikatzeko. %24ren ustez nahikoa da lurraldearekin konektatzea, eta %8k jaiotzarekin lotzen du.



¿Quién “merece” sentirse guipuzcoano/a?

Respecto a los valores que definen ser guipuzcoano/a están estrechamente ligados a la lengua y la cultura, elegidas por un 60% de los participantes, seguidas de la conservación del entorno natural (21%). Otros elementos como el ocio, la solidaridad o la tecnología son percibidos como secundarios. Entre los comentarios, se destaca la importancia de la experiencia de vivir en Gipuzkoa, la integración en la sociedad local y el papel activo de la juventud en mantener y reinterpretar la identidad.

En cuanto a quién merece sentirse guipuzcoano/a, predomina una visión abierta: un 34% cree que lo es quien vive y aporta al territorio y otro 34% que no se necesita permiso para identificarse así. Un 24% piensa que basta con conectar con el territorio y solo un 8% lo limita al nacimiento.

8% Bertan jaio direnak
34% Lurraldean bizi eta ekarpena egiten duenak
24% Edozeinek, lurraldearekin konektatzen duenean
34% Inork ez du “baimenik” behar horrela identifikatzeko

*8% Quien ha nacido allí
34% Quien vive y aporta en el territorio
24% Cualquiera, cuando conecta con ello
34% Nadie necesita “permiso” para identificarse*



Etorkizuna ba al du “auzolan”-ak, Glovoren bidez dena eskatzen dugun eta influencerrekin auzokideekin baino konektatuago bizi garen mundu honetan?


Inkestatuen %45ek uste du bai komunitate digitaletan, bai auzokoei in-darra dutela esparru desberdinetan; %22k tokikoak gehiago baloratzen ditu eta %12k digitalak lehenesten ditu. Horrek erakusten du interakzio fisikoa oraindik ere funtsezkoa dela, nahiz eta digitalak ere eragina izan. Aniztasun kultural eta sozialari dagokionez, inklusioa neurri ertain-altuan hautematen da: %36k 3 puntu eman dio eta %30ek 4, ikuspegi positiboa erakutsiz baina hobekuntzarako tartearekin.

Inklusioari buruz, ia erdiak (%47) uste du arlo guztietan berdindu behar dela, hezkuntza, lana eta kultura espazioak nabarmenduz; honek politika inklusiboen beharrikiko kontzientzia adierazten du. Azkenik, auzolanaren etorkizunari dagokionez, %49k uste du egungo egoerara egokitu daitekeela; %17k dio gaur egungo bizimoduak zaildu egiten duela; %8k komunitate txikietara mugatzen du; %5entzat iraganeko zerbait da; eta %20k ez du iritzirik. Horrek guztiak moderazio baina baikortasunez bateriko ikuspegia uzten du bere jarraipenari buruz.

¿Tiene futuro el “auzolan” en un mundo donde pedimos todo por Glovo y estamos más conectados con influencers que con nuestros vecinos?

Un 45% de los encuestados considera que tanto las comunidades digitales como las de barrio tienen fuerza en distintos ámbitos, mientras que un 22% valora más las locales y un 12% prioriza las digitales, lo que muestra que la interacción física sigue siendo clave aunque lo digital también influye. En cuanto a la diversidad cultural y social, la inclusión se percibe de forma moderada a alta: un 36% la puntúa con 3 y un 30% con 4, reflejando una valoración positiva pero con margen de mejora.

Sobre la inclusión, casi la mitad (47%) opina que debe trabajarse por igual en todos los ámbitos, destacando educación, empleo y espacios culturales, lo que evidencia conciencia sobre la necesidad de políticas inclusivas. Finalmente, respecto al futuro del auzolan, un 49% cree que puede adaptarse al presente, un 17% que el estilo de vida actual lo dificulta, un 8% lo limita a comunidades pequeñas, un 5% lo considera del pasado y un 20% no tiene opinión clara, mostrando que persiste un optimismo moderado sobre su continuidad.



%49 Bai, auzolanak egokitu eta garrantzitsua izaten jarrai dezake
 %8 Bai, baina komunitate oso txiki edo konkretuetan bakarrik
 %17 Ez, egungo bizimoduak zailtzen du mantentzea
 %5 Ez, auzolana iraganekoa da eta gaur ez du zentzurik
 %20 Ez dakit / Ez dut iritzirik

49% Sí, el auzolan puede adaptarse y seguir siendo importante
 8% Sí, pero sólo en comunidades muy pequeñas o concretas
 17% No, el estilo de vida actual hace cada vez más difícil mantenerlo
 5% No, el auzolan pertenece al pasado y hoy no tiene sentido
 20% No lo sé / No tengo una opinión clara

2

“Demokrazia berria”

Atal hau Gipuzkoako herritartasunean sakonki txertatutako balioetan oinarritzen da. Elkartasuna, berdintasun eta justiziaren aldeko konpromiso gisa ulertuta, bizitza kolektiboaren ardatz garrantzitsua izaten jarraitzen du. Horrez gain, historian zehar lurraldea ezaugarritzen duen autogobernuaren borondate irmoa nabarmentzen da: antolatze, instituzio propioak eraikitze eta egoera zailenetan ere aurrera egiteko gaitasun frogatua. Horregatik, atal honetan Gipuzkoako gazteriaren joera nagusiak eta iritziak aztertzen dira, demokrazia eraldatzeko eta hobetzeko ikuspegitik.

“Nueva democracia”

Este bloque se sustenta en valores profundamente arraigados en la ciudadanía de Gipuzkoa. La solidaridad, entendida como compromiso con la igualdad y la justicia, continúa siendo un eje esencial de la vida colectiva. Junto a ella, destaca la firme voluntad de autogobierno que ha caracterizado históricamente al territorio: una capacidad demostrada para organizarse, construir instituciones propias y avanzar incluso en contextos adversos. Es por eso por lo que en este apartado se analizan las principales tendencias y opiniones de la juventud de Gipuzkoa respecto a la transformación y evolución de la democracia.



GAZTEAKT

“Demokrazia berria”


Gaur egungo politikaren pertzepzioa

Gaur egungo politika atzera egiten ari dela izan da gazteen pertzepzio nagusia (52%), eta soilik %9ek uste du aurrera doala, %25ek uste du aldi berean aurrera eta atzera egiten duela, zeinek ziurgabetasun eta konfiantza falta adierazten duten. Demokrazia mehatxatzen duten faktoreei dagokienez, hurrengoak azpimarratu daitezke: eskuin muturraren gorakada (%34) eta buloak eta desinformazioa (%30), jarraian ekonomiaren boterearen eragina (%12) eta polarizazioa (%12). Erantzun irekiek barne-polarizazio handia erakusten dute, eskuin muturra zein ezker muturra, migrazioa, korrupzioa, pentsamendu kritikoa faltak edo autoritarismoa aipatzen dituztenak, gizarte giro tentsios betea eta oso zatitua dagoela adierazten dute

“Nueva democracia”

Percepción de la política actual

La percepción mayoritaria es que la política actual está retrocediendo (52%), mientras solo un 9% considera que avanza y un 25% cree que avanza y retrocede a la vez, mostrando un clima de incertidumbre y falta de confianza. Respecto a las amenazas a la democracia, destacan el auge de la extrema derecha (34%) y los bulos y la desinformación (30%), seguidos por la influencia de los poderes económicos (12%) y la polarización (12%). Las respuestas abiertas muestran una fuerte polarización interna, con menciones tanto a la extrema derecha como a la extrema izquierda, la inmigración, la corrupción, la falta de pensamiento crítico o el autoritarismo, lo que evidencia un clima social tenso y muy dividido.



%9 Aurrera doa
%52 Atzera doa
%25 Aurrera eta atzera aldi berean
%14 Ez dakit / Ez dut erantzun
*Erantzun dute: 635, ez dute erantzun: 324

9% Está avanzando
52% Está retrocediendo
25% Avanza y retrocede a la vez
14% No lo sé / No contesto
*Responden: 635, no responden: 324




Zein politika mota behar ditugu sistema demokratikoa indartzeko?

Buloei dagokienez, migrazioan (%43) eta politikan (%30) aurkitzen dira bulo gehienak. Honek ziurgabetasun eta kondiantza falta giro bat sortzen du. Demokrazia indartzeko berriz, gehien eskatzen dena politika parte-hartzaile eta hurbila (%50) da, baita eskubideen defentsan irmotasun handiagoa (%41), inklusibitatea (%27) eta politika digital eta gardenak (%18) ere bai.

¿Qué tipo de políticas necesitamos para reforzar el sistema democrático?

En cuanto a los temas donde más bulos se perciben, la migración es señalada como principal (43%), seguida de la política (30%), lo que refuerza la idea de que la desinformación se concentra en los debates más sensibles y polarizados. Para reforzar la democracia, se demanda principalmente una política más participativa y cercana (50%) y una mayor firmeza en la defensa de los derechos (41%), junto con políticas inclusivas (27%) y digitales y transparentes (18%).



- %50 Parte-hartzaile eta hurbila
- %41 Eskubideen defentsan irmoagoa
- %27 Politika inklusibo eta interseksionalak
- %18 Politika digital eta gardenak
- %13 Politika globalak (muga-gaindiko arazoak)

- 50% Política participativa y cercana
- 41% Política más firme en la defensa de derechos
- 27% Política inclusiva e interseccional
- 18% Política digital y transparente
- 13% Política global (problemas transfronterizos)



GAZTEAKT

“Demokrazia berria”

Zer rol izan behar du Gipuzkoak gatazka globaletan (Gaza, Ukraina, klima-aldaketa)?

Azkenik, Gipuzkoak gatazka globaletan jokatu beharko lukeen paperari dagokionez, nagusiak dira kultura eta hezkuntza funtzioak (%39) eta humanitarioak (%30), jarraian diplomaziakoak (%27), eta horrek erakitzaile, sentsibilizazio, laguntza eta eskubideen sustapenera bideratutako paper bat nahi dela adierazten du, zuzenean politika esku-hartzean baino.

“Nueva democracia”

¿Qué rol debe jugar Gipuzkoa en conflictos globales (Gaza, Ucrania, cambio climático)?

Por último, sobre el papel que debería jugar Gipuzkoa en los conflictos globales, predominan las funciones culturales y educativas (39%) y las humanitarias (30%), seguidas del papel diplomático (27%), lo que indica una preferencia por un rol constructivo, orientado a la sensibilización, la ayuda y la promoción de derechos, más que a la intervención política directa.



%39 Kultura eta hezkuntza
 %30 Humanitarioa (errefuxiatuak, GKEak)
 %27 Diplomazikoa (bakea, Giza Eskubideak, sarea)
 %18 Ekonomikoa (enpresak eta Giza Eskubideak)
 %18 Tokiko neutrotasuna
 %3 Beste bat

39% Cultural y educativo
 30% Humanitario (refugiados, ONG)
 27% Diplomático (paz, DD.HH, redes)
 18% Económico (empresas y DD.HH)
 18% Neutralidad local
 3% Respuesta libre

3

Ekonomia

Azken urteotan, Gipuzkoako lurraldeak aldaketak izan ditu bere egitura ekonomikoan, globalizazioak eta migrazio-prozesuek eraginda, eta horrek bere biztanleriaren aniztasuna handitu du. Faktore horiek guztiak egokiak dira herritarren pertzepzioa aztertzeko, bai egoera ekonomikoari buruz, bai haren garapenerako beharrezko diren politika publikoenei buruz.

Economía

En los últimos años, el territorio de Gipuzkoa ha experimentado cambios en su estructura económica, influenciados tanto por la globalización como por los procesos migratorios, lo que ha incrementado la diversidad de su población. Estos factores configuran un contexto adecuado para analizar la percepción de la ciudadanía sobre la situación económica y las políticas necesarias para su desarrollo.



GAZTEAKT

Ekonomia


Zein sektoretan du etorkizuna Gipuzkoak?

Gipuzkoak etorkizunean izango dituen sektore nagusiak identifikatzerakoan, herritarrek industria aurreratua aipatzen dute lehen tokian (%33), eta atzetik turismo iraunkorra eta kultura (%27), baita bioteknologia eta osasuna ere (%20). Energia berriztagarriak (%9) eta teknologia digitala zein adimen artifiziala (%11) ere ageri dira, baina pisu txikiagoarekin.

Economía

¿En qué sectores tiene futuro Gipuzkoa?

La ciudadanía identifica como sectores de mayor futuro para Gipuzkoa la industria avanzada (33%), seguida del turismo sostenible y la cultura (27%) y de la biotecnología y la salud (20%). Las energías renovables (9%) y la tecnología digital e IA (11%) también aparecen, pero con menor peso.



%9 Energia berriztagarriak
 %20 Bioteknologia eta osasuna
 %33 Industria aurreratua
 %11 Teknologia digitala eta adimen artifiziala
 %27 Turismo iraunkorra eta kultura
 *Erantzun dute: 527, ez dute erantzun: 432

9% Energías renovables
 20% Biotecnología y salud
 33% Industria avanzada
 11% Tecnología digital e inteligencia artificial
 27% Turismo sostenible y cultura
 *Responden: 527, no responden: 432



GAZTEAKT

Ekonomia


Zer balio bilatzen dituzte gazteek enpresetan?

Garapenaren gako historikoei dagokienez, kooperatibismoaren eta lankidetzaren ideia nagusitzen da argi eta garbi (%54), eta oso gaineratik gelditzen dira deslokalizazioa (%12), turismoa (%21) edo baliabide naturalen mendekotasuna (%8). Ekintzailetzari buruz, iritzi nagusia da (%50) garapena bultzatzen duela, betiere politika eta azpiegituren babesarekin; %29k, berriz, erabakigarria dela uste du, bere horretan. Gazteen balioei erreparatuta, nabarmendu egiten dira lan-egonkortasuna eta segurtasuna (%57), errespetua eta lan-giro ona (%54) eta malgutasuna (%53); ondoren datoz hazkunde profesionala (%40) eta aitortza (%38).

Economía

¿Qué valores buscan los jóvenes en las empresas?

En cuanto a las claves históricas del desarrollo, domina con claridad la idea de cooperativismo y colaboración (54%), muy por encima de factores como la deslocalización (12%), el turismo (21%) o la dependencia de recursos naturales (8%). Sobre el emprendimiento, la opinión mayoritaria (50%) es que sí impulsa el desarrollo, siempre que cuente con apoyo político e infraestructuras, mientras que un 29% lo considera determinante por sí mismo. En relación con los valores que buscan los jóvenes, destacan la estabilidad y seguridad laboral (57%), el respeto y buen ambiente (54%), y la flexibilidad (53%), seguidos por crecimiento profesional (40%) y reconocimiento (38%).



%54 Errespetua eta lan giro ona
 %40 Hazkunde profesionalerako aukerak
 %53 Malgutasuna (ordutegi malguak, telelana...)
 %6 Berrikuntza
 %8 Gizarte eta ingurumen erantzukizuna
 %57 Lan-egonkortasuna eta segurtasuna
 %38 Aitortza
 %2 Beste batzuk

54% Respeto y buen ambiente de trabajo
 40% Oportunidades de crecimiento profesional
 53% Flexibilidad (horarios flexibles, teletrabajo...)
 6% Innovación
 8% Responsabilidad social y medioambiental
 57% Estabilidad y seguridad laboral
 38% Reconocimiento
 2% Otra



GAZTEAKT

Ekonomia


Zein izan beharko litzateke Gipuzkoaren garapenaren lehentasuna?

Azkenik, lurraldearen lehentasunari dagokionez, herritarren ia erdiak (%49) ingurumen iraunkortasunaren alde egiten du; hala ere, %39k uste du hazkunde ekonomiko azkarra lehenetsi beharko litzatekeela, bi ikuspegi horien arteko oreka behar dela agerian utziz.

Economía

¿Cuál debería ser la prioridad para el desarrollo de Gipuzkoa?

Finalmente, respecto a la prioridad del territorio, casi la mitad (49%) apuesta por la sostenibilidad medioambiental, aunque un 39% defiende priorizar un crecimiento económico rápido, mostrando la necesidad de equilibrar ambos enfoques.



%39 Hazkunde ekonomiko azkarra
%49 Ingurumen iraunkortasuna
%12 Beste batzuk

39% Crecimiento económico rápido
49% Sostenibilidad medioambiental
12% Otra

%58

Inkestatutako pertsonen %58k uste du euskara funtsezko elementua dela gipuzkoar sentitzeko.

58%

El 58% de las personas encuestadas considera que el euskera es un elemento necesario para sentirse gipuzkoarra.

%68

%68k gipuzkoar identitatearen ikuspegi irekia defendatzen du, jaioterriaz harago, lurraldearekiko loturan eta egindako ekarpenean oinarritua.

68%

El 68% defiende una concepción abierta de la identidad gipuzkoarra basada en la vinculación y la aportación al territorio, más allá del lugar de nacimiento.

%45

%45ek tokiko komunitateak zein komunitate digitalak gizarte-partehartzerako espazio garrantzitsutzat jotzen ditu.

45%

El 45% valora tanto las comunidades locales como las digitales como espacios relevantes de participación social.

%49

Biztanleriaren ia erdiak (%49) uste du auzolana egungo testuinguru sozialera egokitu daitekeela eta indarrean jarrai dezakeela.

49%

Casi la mitad de la población (49%) considera que el auzolan puede adaptarse al contexto social actual y seguir teniendo vigencia.

%52

Inkestatutako gazteen erdiak baino gehiagok (%52) hautematen du egungo politika atzeraka doala.

52%

Más de la mitad de la juventud encuestada (52%) percibe que la política actual se encuentra en retroceso.

%30-%34

Desinformazioa (%30) eta eskuin muturraren gorakada (%34) dira demokraziarentzat mehatxu nagusizat identifikatzen direnak.

30%-34%

La desinformación (30%) y el auge de la extrema derecha (34%) son identificados como las principales amenazas para la democracia.

%41-%50

Politika parte-hartzailea eta hurbila (%50) eta eskubideen defentsa irmoa (%41) dira sistema demokratikoa indartzeko eskaera nagusiak.

41%-50%

La política participativa y cercana (50%) y la defensa firme de los derechos (41%) son las principales demandas para reforzar el sistema democrático.

%30-%39

Herritarrek lehentasuna ematen diote Gipuzkoak gatazka globaletan izan dezakeen eginkizun kulturalari, hezitzaileari eta humanitarioari (%39 eta %30, hurrenez hurren).

30%-39%

La ciudadanía prioriza un papel cultural, educativo y humanitario de Gipuzkoa en los conflictos globales (39% y 30%, respectivamente).

%20-%27

Industria aurreratua (%33), turismo jasangarria eta kultura (%27) eta bioteknologia eta osasuna (%20) dira Gipuzkoan etorkizuneko proiektzio handiena duten sektoretzat jotzen direnak.

20%-27%

La industria avanzada (33%), el turismo sostenible y la cultura (27%) y la biotecnología y la salud (20%) se identifican como los sectores con mayor proyección futura en Gipuzkoa.

Aktibazio foroa

Aktibazio Foroaren helburua kontsulta digitaletik atera-tako proposamenak lantzea eta plataforman agertzen ziren gazteen kezka eta gai nagusiak benetako proposamenetara eraldatzea da, Gipuzkoako Foru Aldundia aurkezteko. 18-30 urte bitarteko 15-20 gaztek osatzen dute talde hori, lurraldeko hainbat lekutakoak. Aurrez aurreko bi saioetan, Gipuzkoako gazterian eragin zuzena izango duten irtenbide sorta bat ikertzen, sakontzen eta asmatzen aritu da.

1. saioa - Lekua: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia

Lehenengo saioaren helburua Gazteakt Aktibazio Foroan aurkeztea eta urte osoan zehar jarraituko den ibilbide orria ezagutzea zen. Saioan zehar kontsulta digitalaren emaitza nagusietan eta mahai tekniko-politikoaren ondorioetan sakondu zen, Aldundiaren ildo estrategikoetan oinarritutako proposamenak sortu ahal izateko, 4 lan-ildo nagusi lortuz. Azkenik, talde txikitik lan egin zen proposamen digitalen lehen kontaktua egiteko eta 2. saiorako lanean hasteko.

2. saioa - Lekua: Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia, Errearteria

Bigarren saio horretan, proposamenak sakonago garatu ziren. Saio baten eta bestearen artean, talde bakoitzak Foru Aldundian lantzen ari diren ekimen eta programak ikertu behar izan zituen, egokitu zitzaizkien gaiaren arabera. Hainbat dinamikaren bidez, 15 proposamen baino gehiago lantzea lortu zuten, eta horietatik 12 aukeratu dira Foru Aldundiari azken aurkezpena egiteko.

Aktibazio foroa

El Aktibazio Foroa tiene como objetivo trabajar las propuestas extraídas de la consulta digital y transformar las principales preocupaciones y temas de los jóvenes que aparecían en la plataforma a propuestas reales para presentar a la Diputación Foral de Gipuzkoa. Este equipo está formado por 15-20 jóvenes entre 18-30 años, de diferentes lugares del territorio. Su labor se ha centrado en investigar, profundizar e idear, a lo largo de dos sesiones presenciales, una batería de soluciones que tengan un impacto directo en la juventud guipuzcoana.

Sesión 1 - Lugar: Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia

El objetivo de la primera sesión se centraba en presentar Gazteakt al Aktibazio Foroa y conocer la hoja de ruta que se va a seguir a lo largo de todo el año. A lo largo de la sesión se profundizó en los resultados principales de la consulta digital y las conclusiones de la mesa técnico-política, para poder crear propuestas en base a las líneas estratégicas de la Diputación, obteniendo 4 líneas de trabajo principales. Finalmente, se trabajó por equipos pequeños para una primera toma de contacto de las propuestas digitales y empezar a trabajar para la sesión 2.

Sesión 2 - Lugar: Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia, Errearteria

Esta segunda sesión estuvo totalmente centrada en desarrollar las propuestas más a fondo. Entre una sesión y la otra, cada equipo tuvo que investigar acerca de las iniciativas y programas que se están trabajando desde la Diputación Foral en base a la temática que les hubiera tocado. A través de diferentes dinámicas, consiguieron trabajar más de 15 propuestas, de las cuales se han seleccionado un total de 12 para la presentación final a la Diputación Foral.

1.

Ikerketa Euskaraz: euskarazko ikerketa eta argitalpen zientifikoa sustatzeko laguntza-lerroa.

Lantzen duen arazoa.

Euskal eta gipuzkoar ikerketa akademikoaren zati handi bat gaztelaniaz edo ingelesez egiten eta argitaratzen da. Egoera horrek ondorio nabarmenak ditu: euskararen presentzia oso mugatua da ezagutza zientifikoa.

Deskribapena eta helburuak.

Euskararen erabilera handitzea ikerketa akademikoan, euskarazko ekoizpen zientifikoa sustatu eta dibulgatzea, Ikertzaile gipuzkoar gazteen artean euskaraz idazteko joera indartzeko. Gazteek hizkuntza modu naturalean eta erakargarrian dibulgatu beharko dute Twitch, TikTok, YouTube edo Instagram bezalako plataformetan euskarazko kanal propioak sortu eta garatuz.

2.

Entretenimendua euskaraz: haur, nerabe eta gazteentzako eduki digitalen sorrera eta hedapena sustatzeko programa.

Lantzen duen arazoa.

Haur, nerabe eta gazteek kontsumitzen duten entretenimendu digitalen zati handiena erdarazkoa da. Plataformetan, aplikazioetan eta ikus-entzunezko eduki gehienetan euskararen presentzia oso mugatua da.

Deskribapena eta helburuak.

Haur, nerabe eta gazteen artean euskararen erabilera handitzea aisialdian euskarazko entretenimendu digital erakargarria sortu eta euskara eskolatik kanpo ere erabiltzeko ohiturak indartzeko.

3.

HarreraKit.

Lantzen duen arazoa.

Udalerririk asko harrera-gidak edo harrera-irizpideak dituzte, baina horiek ezartzeko modua oso desberdina da udal batetik bestera. Askotan, gidak dokumentu huts bihurtzen dira: ez dago tresna praktikorik, ezta langileek edo herritarrek egunerokoan erabiltzeko baliabiderik ere.

Deskribapena eta helburuak.

Tresna-sortak honako elementuak jaso litzake: harrera-prozesurako material didaktikoa (euskara eta kulturaren arloan), etorri berrientzako material komun eta eguneragarriak, udal-langileentzako orientazio-tresnak eta lan-gidak eta tokiko eragileekin koordinatzeko tresnak.

4.

Hezitzaile linguistikoen sarea aisialdi eremuetan.

Lantzen duen arazoa.

Eskolaz kanpoko aisialdian, bereziki kirolean eta gazteentzako jardueretan, euskararen erabilera oso baxua da erreferentzia faltagatik edo hizkuntza-irizpide argirik ez dagoelako. Hezitzaile eta entrenatzaile askok ez dute baliabiderik ezta laguntzarik ere hizkuntza-irizpideak modu naturalean txertatzeko.

Deskribapena eta helburuak.

Proposamen honek hezitzaile linguistikoen figura sortzea planteatzen du, aisialdiko eta kiroleko espazioetan euskararen erabilera sustatzeko. Hezitzaile linguistikoez ez lukete jarduerak gidatuko, baizik eta begiraleei, entrenatzaileei eta taldeei laguntza eskainiko liekete, euskararen erabilera errazteko, ohiturak aldatzeko eta hizkuntza-irizpideak txertatzeko.

5.

Diasporarekin lotura eta prestakuntza programa.

Lantzen duen arazoa.

Euskal diasporako langile eta ikasle askok ez dute aukera errealik euskararekin harremana mantentzeko edo lan-munduan euskaraz jarduteko gaitasuna garatzeko. Aldi berean, Euskal Herriko enpresa askok nazioarteko profilak behar dituzte, baina ez dute hizkuntza- eta kultura-lotura hori sistematikoki lantzeko tresnarik. Ondorioz, aukera gálera sortzen da bai pertsonentzat bai enpresentzat.

Deskribapena eta helburuak.

Euskal diasporako langile eta ikasleei zuzendutako prestakuntza-programa bat sortzea planteatzen da, euskararen eta euskal lan-ingurunearen ezagutza indartzeko helburuarekin.

6.

Influentzerrak erabiltzea euskal kultura sustatzeko.

Lantzen duen arazoa.

datuak, informazioa eman
Euskal kulturaren bisibilizazio falta

Deskribapena eta helburuak.

Gipuzkoako influenzer talde bat sortu eta euskal kulturari buruzko edukia sortzea. Adibidez Telmo Trenado, Mikel Bermejo, Luma, Zuhaitz Gurrutxaga...

7.

Linea estrategiko berri bat sortzea sare sozialak eta teknologia berrien erabilerari buruzkoa.

Lantzen duen arazoa.

datuak, informazioa eman
Gai hauek gure egunerekotasunean daude, baina askotan ez dakigu zer egin, hau lantzen duen espazio bat behar dugu.

Deskribapena eta helburuak.

Formakuntzan zentratzea eta enpresa berriei eta gipuzkoar gizarteari laguntza ematea.

8.

Biral egiten diren gaiak berifikatzea egia dela plataforma baten bidez.

Lantzen duen arazoa.

datuak, informazioa eman
Informazioa egian den ala ez egiaztatzea, Gipuzkoar gizarteak argi izan dadin entzuten edo ikusten ari dena.

Deskribapena eta helburuak.

Biral egiten diren gaiak egia direla konfirmatzea plataforma digital baten bidez. Adibide bezala Maldita.es. Foru aldundia erreferente bilakatu informazio kontrastatuaren eduki sortzaile eta partekatzaile bezala.

9.

Orientazio Astea: lan-munduari buruzko oinarrizko orientazioa Batxilergoan.

Lantzen duen arazoa.

Gazte askok ikasketak amaitzean edo ikasketa-ibilbidea aukeratzeko ez dute lan-munduari buruzko oinarrizko informaziorik.

Deskribapena eta helburuak.

Batzilergoko ikasleentzat orientazio-aste bat ezartzea planteatzen du proposamenak, derrigorrezkoa, non lan-munduari buruzko oinarrizko nozioak landuko diren. Aste horretan, autokontzientzia lantzea (interesak, gaitasunak, balioak) eta lan-munduaren errealitatea ezagutzea uztartuko lirakeke, aditu eta profesionalen parte-hartzearekin. Helburua da ikasleei informazio argia eta erabilgarria ematea, etorkizuneko erabakiak hobeto hartu ahal izateko.

10.

Laguntza publikoen hizkera erraztea.

Lantzen duen arazoa.

Gazte askok eta, oro har, herritar ugari zailtasunak dituzte laguntza publikoak ulertzeko eta eskatzeko, dokumentu juridikoek eta administrazio-testuek erabiltzen duten hizkera konplexuagatik. Testu horiek askotan teknikoak, luzeak eta ulergaitzak dira, eta horrek desinformazioa, atzerapena edo laguntzak eskatzeari uko egitea eragiten du.

Deskribapena eta helburuak.

Laguntza publikoen informazioa ulergarriagoa egitea, gazteen eta herritarren sarbidea erraztea laguntza publikoetara, informazio-desberdintasuna murriztea eta laguntza publikoen eskaera kopurua handitzea.

11.

Bakardadearen kontrako bono kulturala.

Lantzen duen arazoa.

datuak, informazioa eman
Bakardadearen egoerari aurre egiteko gazteak (19-30) eta helduak (+65) urbildu nahi dira.

Deskribapena eta helburuak.

Bakardadearen aurkako bono kultural intergenerazionala sortzea, gazteek eta adinekoek elkarrekin kultur esperientziak partekatzeko aukera izan dezaten. Bonu horren bidez, binaka edo talde txikitan, esperientzia kulturaletan parte hartzea sustatuko da (zinema, antzerkia, kontzertuak, museoak, tailerrak...), harreman sozialak modu informalean eta positiboan sortuz.

12.

Ikaskuntza eta boluntariotza konpaginatu.

Lantzen duen arazoa.

datuak, informazioa eman
Bolondres berriak "sortzeko" dagoen barrera puskatzea

Deskribapena eta helburuak.

Boluntario lanak eginez, ikaskuntzetan erreztasunak lortzea



	Yeray Arakistain
	23 urte Aia

	Paula Fernández
	26 urte Donostia

	Ainhoa Azkarate
	28 urte Deba

	Nerea Arza
	26 urte Donostia


	Paula Valiente
	28 urte Donostia

	Naia Begiristain
	27 urte Lazkao

	Asmae Ourdi
	28 urte Eibar

	Irune Mateos
	27 urte Lazkao

	Julen de Frutos
	24 urte Donostia

	Ionan Trezet
	27 urte Errenteria

	Lander Zunzunegui
	24 urte Donostia

	Tamara Cruz
	27 urte Donostia

	Julen Beloki
	22 urte Donostia

	Niko Esteban
	22 urte Lasarte

	Nahia Delgado
	31 urte Donostia

	Maialen Arrese-Igor
	24 urte Billabona

	Mikel Martinez
	30 urte Tolosa

gazteakt

Zuzendaritza

Dirección

Osoigo
Osoigo next
TINC

Diseinu editoriala

Diseño editorial

bigga. studio

Tipografiak

Tipografías

Botch
Right Serif Narrow
Archivo Narrow

Argazkiak

Imágenes

pexels.com

Sare sozialak

Redes sociales

@gazteakt

Informe digitala

Informe digital



gazte**akt**